

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
		Azken dataua	Δ Urte artean (%) *aurreko aldia	Azken data dataua
- Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak % 0,4 egin du gora aurreko hilabetearekin alderatuta eta 200.416 pertsona izan dira. Erregistratutako langabeen kopurua jaitsi egin zen apirilean, eta orain 20.431 dira, martxoan baino % 2,7 gutxiago. - Bilboko enpresetako kontratu kopurua urte batetik bestera % 9,2 igo da apirilean. - Txikizkako merkataritzako salmentek % 2,6ko igoerarekin itxi dute 2026ko lehen hiruhilekoa, 2025eko aldi berarekin erkatuta. - Saltoki handietako eta elikagaien kateetako apirilako salmentek urte arteko -% 2,3ko beherakada nominala izan dute. - Merkatuko beste zerbitzu batzuen salmenta-indizea % 1,5 igo da urtearen lehenengo hiruhilekoan. - Bilboko hotel-establezimenduen, apartamentuen eta aterpetxe turistikoek jarduera turistikoak, guztira, 133.045 bidaiari-sarrera eta 270.125 gaualdi izan ditu (-% 1,1 eta +% 5,1, hurrenez hurren). - Bilboko aireportuak 689.514 bidaiari jaso ditu apirilean; hortaz 71.847 bidaiari gehiago egon dira 2025eko hilabete berarekin alderatuta. - Bilboko Portuko salgaien garraioa apirilean % 7,7 igo da urtetik urtera.	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	200.416	0,4*	Ap.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	20.431	-2,7*	Ap.
	Erregistratutako kontratuak	9984	9,2	Ap.
	Merkataritza			
	Comercio minorista: índice de ventas (año 2021=base 100)	112,3	2,6	IT26
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	95,5	-2,3	Ap.
	Ekonomia eta enpresak			
	Zerbitzuak: salmenta-indizea (2021 urtea= 100 oinarria)	122,2	1,5	IT26
	Turismoa (hotelak, apartamentuak eta aterpetxeak)			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	133.045	-1,1	Ap.
	Ostatu-gauak (kop.)	270.125	5,1	Ap.
	Batez besteko egonaldia (egunetan)	2,03	0,12 e.p.	Ap.
	Garraioa			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	689.514	11,6	Ap.
	Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	2,9	7,7	Ap.

DATU BAT

% 11,6

Aireportuko bidaiariak

MERCADO DE TRABAJO

Erregistratutako langabezia

Apirilean 576 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko $- \% 2,7$ gutxiago, eta 20.431 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean, $- \% 3,1$ eta $- \% 2,5$, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 279 gizon langabe eta 297 emakumezko langabe gutxiago zeuden.

Langabeziak behera egin du hiru adin-tarteetan: gazteenen artean $- \% 10,3$; 25-44 urtekoen artean $- \% 3,7$; eta 45 urte eta gehiagokoaren artean $- \% 0,9$ (204, 268 eta 104 langabe gutxiago, hurrenez hurren).

Sektoreka, zerbitzuetan 463 langabe gutxiago daude ($- \% 3,1$), eraikuntzan 34 gutxiago ($- \% 2,8$), Industrian 23 ($- \% 1,7$) eta lehen sektorean 7 gutxiago ($- \% 1,9$). Lehen lanaren bila dabilen kopuruak ere behera egin du ($- \% 1,5$ eta $- \% 49$).

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak $- \% 2,3$ egin du behera aurreko hilaren aldean. Taldeko hiriburu guztiek murriztu dute langabezia, Zaragozak gehien ($- \% 2,9$) eta Valentziak gutxien ($- \% 0,3$).

Euskal hiriburu multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa $- \% 2,8$ jaitsi da. Gasteizen $- \% 3,0$ jaitsi da, Donostian $- \% 3,3$ eta Iruñean $- \% 2,1$.

Langabeziak behera egin du EAEn ($- \% 3,1$) hilabete artean. Lurraldeka: Bizkaian $- \% 2,9$ jaitsi da, Araban $- \% 3,3$ eta Gipuzkoan $- \% 3,5$.

Afiliazioa

Bilboko enpresetan 200.416 afiliatu zeuden apirila amaieran, hau da, $\% 0,4$ ko igoera izan zen eta 786 enplegu ugaritu ziren martxoarekin alderatuta.

Erregimen guztiak hazten dira. Orokorra 696 afiliazio gehiago izan ditu aurreko hilaren aldean ($\% 0,4$), Langile Autonomoen Bereziak 61 gehiago ($\% 0,3$), Etxekoenak 7 ($\% 0,1$) eta Bereziak (Nekazaritza eta Itsasoa) 22 enplegu gehitu dituzte.

Sektoreka, Zerbitzuetan 833 afiliatu gehiago daude ($+ \% 0,5$), Eraikuntzan 23 gehiago ($+ \% 0,2$) eta Lehen Sektorean 20 gehiago ($+ \% 6,6$). Aldiz, Industrian 90 enplegu galdu dira ($- \% 1,1$).

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Apirilak	20.431 pertsona
	$\% 2,7$ ▼
Emakumeak	$\% 2,5$ ▼
Gizonak	$\% 3,1$ ▼

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	$\% 2,7$ ▼
G-5	$\% 2,3$ ▼
G-3	$\% 2,7$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Apirilak	200.416 pertsona
	$\% 0,4$ ▲
Araubide orokorra	$\% 0,4$ ▲
Autonomoak	$\% 0,3$ ▲
Etxeko langileak	$\% 0,1$ ▲
Bestelakoak	$\% 3,3$ ▲

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmentzekoak dira hezkuntzan, administrazio-jardueretan eta zerbitzu osagarrietan, aisia eta kultura jardueretan eta ostalaritzan izandako igoerak (516, 235, 65 eta 56 gehiago, hurrenez hurren). Enpleguak, besteak beste, behera egin du Gizarte-zerbitzuen, Beste zerbitzu batzuen, Informazioaren eta komunikazioaren eta Txikizkako merkataritzaren adarretan (-68, -31, -26 eta -24, ordena horretan).

Urte arteko terminoan enpleguak % 0,8ko hazkundea izan du, hau da, 1.526 afiliatu gehiago.

Erroldaren arabera, Orokorra hazi egin da, % 1,0; gainerakoa jaitsi: Autonomoena -% 0,3 jaitsi da, Etxekoena -% 0,5 eta Bereziarena (Nekazaritza eta Itsasoa) -% 2,7.

Oharra: EJSN-2025 berria dela eta, aldaketa horrekin jardura batzuen sailkapena aldatu egin da, eta horrek esan nahi du ezin direla alderatu aurreko kodetzearekin. Hori dela eta, paragrafo honetan ezin izango da jardura-adarren arabera urte arteko aldaketarik egin 2027ko urtarilerara arte.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,3ko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztietan gora egin du afiliazioak. Gehiena Madrilan (% 0,4).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, mantendu egin da (% 0,0). Iruñean jaitsi egin da (-% 0,1); Gasteizen mantendu egin da (% 0,0) eta Donostian gora egin du (% 0,1).

EAEn, oro har, afiliatuak % 0,3 igo dira hilabete artean. Lurraldeka, Araban % 0,4 igo da afiliazioa, Bizkaian % 0,3 eta Gipuzkoan % 0,1.

Kontratuak

Apirilean 9.984 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, urtetik urtera % 9,2ko igoera eta 842 kontratu gehiago.

Urtetik urtera behera egin dute gizonei egindako kontratuak, eta gora, berriz, emakumei egindakoak: 11 gutxiago eta 853 gehiago, hurrenez hurren.

Kontratuak adin-tarte guztietan igo dira: 45 urte eta gehiagokoen taldean % 2,8 (72 kontratu gehiago); 25-44 urtekoen taldean % 5,6 (255 gehiago); eta gazteen taldean % 25,3 (515 gehiago). Erregistratutako kontratuen % 48,2 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (4.813 kontratu) % 26,3 berriz, 45 urtetik gorakoei (2.621) eta gainerako % 25,5, ordea, gazteenei (2.550).

Afiliatuak, jardura-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

Apirilak	200.416 pertsona
	% 0,4 ▲
Zerbitzuak	% 0,5 ▲
Eraikuntza	% 0,2 ▲
Industria	% 1,1 ▼
Lehenengo Sektorea	% 6,6 ▲

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 0,4 ▲
G-5	% 0,3 ▲
G-3	% 0,0 =

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Apirilak	9.984 kontratu
	% 9,2 ▲
Emakumeak	% 17,7 ▲
Gizonak	% 0,3 ▼
Lehenengo Sektorea	% 150,0 ▲
Industria	% 12,0 ▲
Eraikuntza	% 1,9 ▼
Zerbitzuak	% 9,4 ▲
Kontratatutako pertsonek	% 7,3 ▲

Sektoreka, Eraikuntzan soilik egin dute behera kontratuak (-% 1,9 eta 6 kontratu gutxiago); gora egin dute, berriz, Zerbitzuetan (% 9,4 eta 790 gehiago), Industrian (% 12,0 eta 52 gehiago) eta Lehen sektorean, 6 gehiagorekin.

Zerbitzuetan, igoera absolutu esanguratsuenak Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (712 gehiago), Etxeko langileak (235 gehiago) eta Beste zerbitzu batzuk (207 gehiago) izan dira. Informazioa eta komunikazioak (-329) eta Merkataritza (-175) dira urte arteko jaitsiera handienak izan dituzten adarrak.

Apirileko aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 72,8 izan dira. Mugagabeek % 21,7 egin dute gora urtetik urtera. 7.572 pertsona kontratatu dira, % 7,3 gehiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,32 kontratu.

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza-salmentak

Bizkaiko Txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko % 2,6ko hazkundea izan du salmentetan lehen hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 2,2 egin dute gora.

Aurreko hiruhilabetekoarekin alderatuta, % 0,2 igo dira salmentak (urtaro efektua kendutako datuetan).

Aztertutako sektore guztietan hazi dira urte arteko salmentak: automobilgintzarako erregaiaren salmentak izan dira igoera handiena izan dutenak (% 12,2); elikagaien salmentak eta gainerako produktuenak % 2,4 eta % 1,9 igo dira, hurrenez hurren.

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak % 0,9 igo dira iazko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

EAEn salmentek % 3,3 egin dute gora. Lurraldeka ere gora egin dute: % 4,7 Araban eta % 3,9 Gipuzkoan.

Txikizkako merkataritza Bizkaia

Urte artekoa Δ

I. hiruhilekoa	112,3 adierazle orokorra
	% 2,6 ▲
- Elikadura	% 2,4 ▲
- Gainerako produktuak	% 1,9 ▲
- Automobilgintzarako erregaia	% 12,2 ▲
Zerbitzugunerik gabe	% 2,2 ▲
Lanean ari diren langileak	% 0,9 ▲

Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, apirilean $-2,3\%$ egin dute behera urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, $0,5\%$ igo dira salmentak.

Elikagaien salmentek behera egin dute ($-0,1\%$) 2025eko apirilarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek $-6,0\%$ egin dute behera.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko $-0,9\%$ ko atzerakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban ($-0,7\%$), eta Gipuzkoan soilik egin dute gora ($+1,1\%$). EAEn, orokorrean, $-1,0\%$ egin dute behera.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Apirila	95,5	
Salmenten indizea	2,3%	▼
- Elikadura	0,1%	▼
- Gainerako produktuak	6,0%	▼
Lanean ari diren langileak	0,9%	▼

EKONOMIA ETA ENPRESAK

Merkatuko beste zerbitzu batzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, $1,5\%$ igo dira lehen hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera $0,2\%$ koa izan da.

Jarduera-adarren arabera, lehenengo hiruhilekoan, Garraio eta biltegiatzea ($-1,0\%$), Informazioa eta komunikazioak ($-0,1\%$) eta Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak ($-0,4\%$) adarrek behera egin dute. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek $4,8\%$ egin dute gora, ostalaritzak $3,9\%$.

Landunak $1,2\%$ igo dira urtetik urtera.

Araban beste zerbitzuen salmenten indizeak $1,9\%$ egin du gora, Gipuzkoan $0,2\%$ eta EAEn $0,7\%$.

Merkatu-zerbitzuen salmentak. Bizkaia

Urte artekoa Δ

I hiruhilekoa	122,2	
Salmenten indizea	1,5%	▲
Lanean ari diren langileak	1,2%	▲

TURISMO

Oro har, turismo-establezimenduetan (hotelak, apartamentu eta ostatu turistikoak), apirilean 133.045 sarrera eta 270.125 gauraldi izan dira Bilbon (urte batetik bestera $-1,1\%$ eta $+5,1\%$, hurrenez hurren). Batez besteko egonaldia 2,03koa izan da, 2025eko apirilekoa (1,91) baino handiagoa.

Bilboko **hotel-establezimenduetan** 216.145 ostatu-gau erregistratu dira apirilean, hau da, $4,8\%$ ko hazkundea egon da urtetik urtera (9.956 ostatu-gau gehiago).

Bidaia-ien sarrerak ere gora egin du, $2,4\%$. Estatuko bidaia-ien presentziak gora egin du urte artean ($7,2\%$), eta apirilean hirira egindako bisita-ien $59,2\%$ izan dira. Gainerako $40,8\%$ estatuko bidaia-ia-rik dira, eta $-3,8\%$ murriztu dira.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaia-iei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugari-ienak (22%), gero Kataluniakoak ($13,6\%$), EAEkoak ($13,5\%$) eta Valentziako Erkidegokoak ($7,5\%$). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugari-ienak: Frantzia ($10,9\%$), AEB ($10,3\%$), Erresuma Batua (10%) eta Alemania ($9,8\%$).

Bidaia-ien batez besteko egonaldia 1,98 gauraldikoa da (iazko apirilean 1,93koa).

Hotel establezimenduek emandako errentagarritasun datuen arabera, urtetik urtera batz besteko tarifak gora egin du, 125,3 euroraino, baita gela eskuragarriko diru-sarrerak ere ($100,9$ euro).

Apartamentu turistiko-ien establezimenduek¹ 14.560 sarrera erregistratu dituzte guztira apirilean, hau da, $-13,2\%$ gutxiago, eta 36.426 gauraldi, eta 2025eko apirilean baino $19,9\%$ gehiago.

Apirilean, 9.129 sarrera eta 17.554 gauraldi erregistratu ziren **turismo-aterpetxeetan**², $-17,3\%$ eta $-13,8\%$ gutxiago urte batetik bestera, hurrenez hurren.

¹ Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatu ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena.
(Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

² Turismo-aterpetxeak: "Turismo-aterpetxeak" dira, ohikotasunez eta modu profesionalean, ordainsari baten truke, plaza bakoitzeko geletan ostatu-zerbitzua eskaintzen duten establezimenduak; gehienbat gela kolektiboetan edo edukiera anitzeko geletan, eta, hala badagokio, jatetxe- edo ostalaritza-zerbitzu osagarriekin edo horiek gabe. Halaber, aisialdiko, hezkuntzako, kiroleko nahiz bestelako jarduerak ere eskain ditzakete".

Establezimendu turistiko hartzaileak GUZTIRA

Urte artekoa Δ

Apirilak

Ostatu-gauak, guztizkoak	270.125 ostatu-gauak
	$5,1\%$ ▲
Sarrerak, guztira	133.045 sarrerak
	$1,1\%$ ▼
Egonaldia, batez beste	2,03 ostatu-gau/bidaia-iariko

Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

Apirilak

Ostatu-gauak	216.145 ostatu-gauak
	$4,8\%$ ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	$3,5\%$ ▲
Gainerako hotelak eta pentsioak	$8,7\%$ ▲
Bidaia-ien sarrerak	109.356 sarrerak
	$2,4\%$ ▲
Espainiakoak	$3,8\%$ ▼
Atzeritarrak	$7,2\%$ ▲
Egonaldia, batez beste	1,98 ostatu-gau/bidaia-iariko
Hotelen errentagarritasunaren adierazleak	
Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	$11,7\%$ ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	$19,9\%$ ▲

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Apirilak

Ostatu-gauak	36.426 ostatu-gauak
	$19,9\%$ ▲
Bidaia-ien sarrerak	14.560 sarrerak
	$13,2\%$ ▼
Egonaldia, batez beste	2,50 ostatu-gau/bidaia-iariko

Turismo-aterpetxeak

Urte artekoa Δ

Apirilak

Ostatu-gauak	17.554 ostatu-gauak
	$13,8\%$ ▼
Bidaia-ien sarrerak	9.129 sarrerak
	$17,3\%$ ▼
Egonaldia, batez beste	1,92 ostatu-gau/bidaia-iariko

Aste Santua Bilbon (ostegunetik igandera, 4 gau).

Aste Santuan 19.933 sarrera eta 43.782 gualdi erregistratu dira Bilboko hotel, apartamentu eta aterpetxe turistikoetan, 2025eko Aste Santuan baino % 2,5 eta % 0,9 gehiago, hurrenez hurren. Turismoaren % 47 estatukoa da eta batez besteko egonaldia 2,20 ostatu-gau bidaiari bakoitzeko; hau da, gora egin du 2025ko Aste Santuarekin alderatuta (2,12).

Benchmarkinga. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, % 2,9 hazi da urtetik urtera. Gasteizen -% 3,0 jaitsi dira, Donostian % 3,0 igo dira eta Iruñean ere gora egin dute: % 9,8.

EAE osoan % 5,0 igo dira aurreko urteko apirilaren aldean. Lurralde guztietan gehitu da kopuru hori: Bizkaian % 8,0, Gipuzkoan % 2,8 eta Araban % 2,3.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 1,9ko gorakada izan dute. Zaragozan (-% 3,7) eta Bartzelonan (-% 0,4) izan ezik, ostatu-gauak gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du igoerarik handiena: % 15,0.

Aste Santua (apirilaren 2tik 5era)

Urte artekoa Δ

	Sarrerak	Ostatu-gauak
Hotelak	15.937 ▲	34.494 ▲
Apartamentuak	2.406 ▼	6.197 ▲
Aterpetxeak	1.590 ▼	3.091 ▼

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 4,8 ▲
G-5	% 1,9 ▲
G-3	% 2,9 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko bidaiariak

Bilboko aireportuak 689.514 bidaiari izan ditu apirilean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 11,6 eta 71.847 bidaiari gehiago. Emaiz horiekin, gainera, apirileko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zenetik.

Merkataritza-operazioetan, igo egin da hegaldi nazionaletako bidaiarien kopurua (25.911 bidaiari gehiago, % 7,7), baita nazioartekoetakoa ere (45.942 bidaiari gehiago, % 16,3).

Hilean operatutako hegaldiak igo egin dira, eta iritsieren eta irteeren artean 5.087 izan dira. Eta jaitsi egin dira, aldiz, haietan garraiatutako salgaiak (-% 46,3).

Apiriletik urtarrilera 2.084.209 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 8,1 gehiago, hau da, 155.450 bidaiari gehiago.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Apirilak	689.514 bidaiari
	% 11,6 ▲
Espainiakoak	% 7,7 ▲
Nazioartekoak	% 16,3 ▲
Salgaiak (kg)	% 46,3 ▼
Hegaldiak	% 8,3 ▲

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 4,7ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Aireportuen artean Sevillakoa izan da igoera handiena izan duena (% 11,5), eta Madrilgoa, berriz, txikiena izan duena (% 3,3). Soilik Zaragozak egin du behera (-% 6,8).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, urtetik urtera % 13,6 igo da. Gora egin du Gasteizen (% 20), Donostian (% 9,8) eta Iruñean (% 9,5).

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 11,6 ▲
G-5	% 4,7 ▲
G-3	% 13,6 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,9 milioi tonako trafikoa izan du apirilean, hau da, % 7,7 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan martxoan kudeatzen diren salgaien % 62,8 izan da, eta urte arteko % 3,8ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 0,3 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra % 23,3 igo.

Apirilean 14.641 itsas bidaiari erregistratu dira 8 itsas bidaiatan.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik apirilera, 11,3 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino % 3,7 gehiago.

Itsasoko garraioa Apirila

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,9 milioi tona. % 7,7 ▲
Bidaiarien garraioa	26.190 bidaiari % 13,4 ▲
Gurutzaldiko bidaiariak (kop.)	14.641 gurutzaldiko bidaiari % 53,5 ▲

ADIERAZLEEN KOADROA


	Azken datua Δ	Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.431	-2,7*	2026ko apirila
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	200.416	0,4*	2026ko apirila
Erregistratutako kontratuak (kop ^o)**	9.984	9,2	2026ko apirila
Biztanleria aktiboa (milaka)	177,0	-0,6*	2026ko I. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	163,8	4,6*	2026ko I. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	13,3	-38,1*	2026ko I. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	7,49	-4,59 ep.*	2026ko I. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	103,2	0,6*	2026ko apirila
Afiliatuak**	19.258	-0,1*	2026ko apirila
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	112,3	2,6	2026ko I. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	95,5	-2,3	2026ko apirila
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaerien sarrerak	109.356	2,4	2026ko apirila
Ostatu-gauak	216.145	4,8	2026ko apirila
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaieriak)	1,98	2,6	2026ko apirila
Hotelen okupazio maila (%)	67,8	3 e.p.	2026ko apirila
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	100,9	19,9	2026ko apirila
Apartamentu turistikoak			
Bidaerien sarrerak	14.560	-13,2	2026ko apirila
Ostatu-gauak	36.426	19,9	2026ko apirila
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,50	38,13	2026ko apirila
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	109,0	0,5*	2025eko IV. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	110,0	0,1	2026ko martxoa
Merkataritza-sozietate berriak	250	-3,8	2026ko I. HH
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	122,2	1,5	2026ko I. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	5.015,1	-2,6*	2025eko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m ²)	3.656,3	9,4*	2025eko IV. HH
Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete)	984,1	4,4*	2025eko III. HH
Garraioa			
Bidaerien aireko garraioa (kop.)	689.514	11,6	2026ko apirila
Hegaldiak	5.087	8,3	2026ko apirila
Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	2,9	7,7	2026ko apirila
Hiri-eta metropoli-garraioa (milioi bidaiari)	137,8	9,5	2025

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK


Afiliatuak




Erregistratutako langabezia




Txikizkako merkataritza-indizea



Beste zerbitzuen indizea



Aireportuko bidaiariak



Hoteletako ostatu-gauak (kop.)

